

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



Platea Tripak euskal konpainiaren hirugarren lana da, hausnarketa existentsiala heriotzaren eta bizitzaren artean gertatzen denaz, umore eta absurdurako tartearekin.

AZKUNA ZENTROAK *PLATEA* AURKEZTUKO DU, TRIPAK KONPAINIAREN HIRUGARREN LANA

- Obra eszeniko honek heriotzaren eta bizitzaren artean gertatzen denari buruzko hausnarketa existentsiala planteatzen du, eta asteazken honetan, azaroak 29, izango da, Azkuna Zentroko Auditorioan, 19: 00etan
- 2013an sortua, Tripak konpainia Maite Mugerza eta Marina Suarez artista plastikoek eta Andrea Berbois biolin jotzaileak osatzen dute

INFORMAZIO PRAKTIKOA

Data: azaroak 29, asteazkena

Lekua: Azkuna Zentroa Auditorioa

Ordua: 19:00etan

Ezinbestekoa da bertaratzea baieztatzea prensa@azkunazentroa.eus helbidean

Bilbo, 2023ko azaroaren 28a. Asteazken honetan, azaroaren 29an, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak *Platea* aurkeztuko du, Tripak arte eszenikoen euskal konpainiaren hirugarren ekoizpena. Pieza honetan, minaren eta urraduraren irudiak umoreak eta absurdoak zeharkatzen dituzte. Hauek, kantu polifonikoek eta akordeoiaren eta biolinaren soinuek —klasikotik esperimentalera joz— ikuspegi poetiko eta abstraktuak biltzen dituzte

Lan elebidun honetan (euskaraz eta gaztelaniaz), ikusleak mundu honetara iristen diren pertsonaiei lagunduko die bere bidaian. Haiek erakutsiko digute, egoera emozional arketipikoenen gainetik, gizakiaren alderdi ez hain nabarmenak. Gutxiespenari beldurra, desobedientzia, manipulazio saiakerak, erridikuloaren sentsazioa edo adierazteko ezintasuna agertzen dira ikusleen aurrean, distirak bezala antzezlanean zehar.

Platea sortzaileen esperientzia pertsonaletatik sortu da, eta diziplinen arteko oztupoak hausten ditu, emanaldia, *performancea* eta musika ikuskizun berean bilduz. "Aldi berean esperientzia fresko eta sakona eskainiko duen antzerki bat nahi dugu. Horretarako, baliabide espresiboak modu libre eta esperimentalean erabiltzeko aukera ematen dugu, esekidura eta aurkikuntza bilatuz", azaldu dute Tripakeko sortzaileek. Zentzu horretan, *Plateak* ohiko narratiba konbentzionala gainditzen du, eta bitarteko bat da publikoa barreetatik eta malkoetara eramateko.

Bitarteko existentziaren edo arimen trantsizio-egoeraren ideiatik abiatuta, "Platea"-n, oturuntza-mahai bat aurkezten zaigu, imajinatutako linbo baten irudikapen gisa, padurak dituen paisaia baten erdian. Mareen mugimenduak nabarmentzen du bizitzak eman eta hartzeko duen bereizgarria, azalpenik edo lokarririk aurkitu gabe. Jainko batek, zeremonien maisu gisa, ongi etorria ematen die inguru aldakor horretara iristen diren gorpuei.

Itsasoak eramanda, noraezean edo konorterik gabe iristen dira, naufragoak edo sirenak bailiran; denek izan zituzten bizitza eta heriotza lehenago. Lekua azken ospakizunerako, transmutazio handirako prestatuta dago, baina, lehenago, beren aurreko borondateak utzi beharko dituzte, oraindik ere haien oihartzuna entzuten baita.



Platea antzezlanaren une bat

Tripak-i buruz

2013an sortuta, munduaren eta estetikaren ikuspegi berezian oinarritutako sorkuntzak eskaintzeko asmoz, Tripak Maite Mugerza, Marina Suárez eta Natalia Suárez artista plastikoek eta Andrea Berbois biolin jotzaileak osatzen dute. 2013an sortu zen, Baratza Aretoa (Vitoria-Gasteiz) sortzeko laborategiaren testuinguruan, munduaren eta artearen bere esperientzia eta ikuspegi partikularretan oinarritutako sorkuntza propioak eskaintzeko asmoz.

Azkuna Zentroari buruz

eszenAZ. Azkuna Zentroko Arte Bizien Denboraldia, eszena garaikidearen leihoa irekitzen du, diziplina arteko eta transmediako proposamenen programazio egonkorrarekin. Antzerkia testua, ekintza eta askoz gehiago da. Dramaturgia berriek adierazle publiko bihurtzen dute gorputza. Dantzariek eta koreografoek dantzaren eta performancearen beste ikuspegi bat proposatzen dute, mugimendu-forma berriekin edo soinuak eta ikusizko entitateekin elkarreraginez, eta horrek aukera ematen die beren gorputz-presentzia aldatu eta zabaltzeko.

Soinuak, bitarteko gisa kokatuta, eta ez helburu bezala, ahotsa, dantza eta beste lengoia batzuk hartzen ditu. Irailtik ekainera, Ataria, Auditorioa eta Kubo Baltza bertako eta nazioarteko eszenako lanik berritzaileen agertokia izango dira. Ikuskizun horiek esperientzia murgiltzaile, garaikide, bakan eta errepikaezinen erdian jartzen dituzte ikusleak. Antzerkia, musika, dantza eta *performancea* sentitzeko beste modu bat da.